# Oiartzun

## OIARTZUN EZAGUTU



Egileak:

Goxoki taldea

LH5C

Ikastolen elkartea

# Oiartzun gozatu

INTXIXU



## Aurkezpena

Kaixo, lagunok Intxixu naiz. Ni indartsua naiz, basandreek indartsua izaten erakutsi zidaten. Txikitatik jakin-mina eduki dut pertsonen bizitzari buruz. Nahi al duzue nire herria ezagutu?

Egun zoragarria pasa nahi al duzu?

Ven y disfruta de una experiencia inolvidable.

Have fun!

## Presentación

Hola amigos. Me llamo Intxixu. Soy muy fuerte, las brujas del bosque me enseñaron a ser muy fuerte. Desde pequeño he tenido curiosidad de los humano.Â Â¿Os gustaríaÂ disfrutar de un dia maravilloso en mi pueblo?

# Oiartzun begirada batean




## Kokapena

Oiartzun Euskal Herriko Kantauri isurialdeko ipar mendebaldean kokatuta dago. Errenteria, Donostia, Lezo, Goizueta, Arano, Irun eta Lesaka ditu mugakide.

## Erliebe-elementuak

Oiartzungo erliebe elementuak Oiartzun ibaia, Urkabe mendia, Aiako Harria, Biantditz mendia...

## Bestelako informazioa

Oiartzunek istorio asko ditu baina bat Cromlechena da: H **ileta-monumentua Burdin Arokoa da eta 1909an aurkitu zuen P. Soralucek.**

Oiartzungo pertsona ospetsuak hauek dira: Ander Imaz (pelotaria), Peio Añorga (ipuin kontalaria), Joxe Manuel Etxarte (txondorgilea)(Trumoia), Alaia eta Jon Martin (Bertsolariak), Juanito Arozena (txistularia)...

# ZER IKUSI
# (Interesgune naturalak)

## BIANDITZ



Bianditz 840m garaiera dauka. Oiartzun ibaiaren bailarako tontorrik handiena da. AiakoÂ Harria baino metro batzuk altuagoa baita.

Mendira gainera erraz iritsi daiteke, bertara errepide gertu geratzen baita. Gertu dituen mendiak: Aiako Harriak, Bunaniarri eta Zaria. Inguruko lepoetan ugari dira historia aurreko aztarnak, mairu baratzak batez ere (Oianlekukoa esaterako). Urtegia dela eta ingurua baso aberatseko ingurua da.

# ZER IKUSI
# (Interesgune naturalak)

## URKABE



Urkabe Oiartzungo mendi bat da. Oiartzungo Elizalde auzoan dago kokatuta. Urkabek 234 m neurtzen ditu.

Aiako Harria baino metro batzuk txikiagoa da. Urkabeko gailurrean gurutze handi bat dugu eta bide guztian txiki batzuk. Urkabeko bidean bukatu eta Learre izeneko malda batean aurkitzen da.

# ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

## ARPENEA



Arpidene etxea Elizalde auzoanÂ dago, herriko plazan. XVIIÂ mendekoa da. Etxe honetan arpa bat ikusten da, egurrean zizelkatua, plaka bat ikusten da etxearen izenarekin. Garai hura Aro Modernoa zen. Garai batean defentsa bat izan zen Iturriozeko galtzadatik etor zitezken erasoak txikitzeko.

Arpidenea kare-harriz egina da, etxearen funtzioa bizitokia izatea zen. Bere jatorrizko izenaÂ TorrazarÂ da.

# ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

## SOINUENEA




1996ko urtarrilean, Juan Mari Argiñenak eta Oiartzungo Udalak Herri Musikaren Txokoa martxan jartzeko akordioa lortu zuten. Zentroak 2002 martxoaren 1ean ireki zituen ateak publiko orokorrari. Herri Musikaren Txokoa inguruko dokumentazioa eta topagune bat da, musikarekin eta herri-tresnekin zerikusia duen guztia ezagutarazteaz arduratzen dena, baita haren hedapenan, sustapena eta ikerketa.Â

Â

# Zirkuituaren mapa




## Legenda

Norabidea

Erreferentzia-puntua

Abiapuntua

Interesguneak

Helmuga

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren lehen urratsa

1

Abiapuntua: Haurtzaro Ikastola.

### Deskribapena

Abiapuntua Haurtzaro Ikastola izango da, Elizalde auzoan kokatuta dago.

Lehen interesgunera joateko, aurrera joan biribilgunea aurkitu arte. Hor biratu eskuinera, joan aurrera eta utzi ezkerretara Madalensoro pilotalekua. Ondoren, joan aurrera,Â plazara iritsi arte eta hor plazan Xabale izeneko taberna bat dago, horixe da Arpidene etxea.

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren bigarren urratsa

1 → 2

Lehenengo interesgunetik bigarren interesgunera joateko: Elizalde Herri Eskola.

### Deskribapena

Lehenengo interesgunetik bigarren interesgunera joateko, jaitsi lehenÂ igo duzun malda eta joan Elizalde Herri Eskolara. Hortik joan aurrera eta mendi bat ikusiko duzu, mendiaren izena Bianditz da. Bianditz oso handia da eta natura asko dago.

## Zure zirkuituaren hirugarren urratsa

2 → 3

Bigarren interesgunetik hirugarren interesgunera joateko: Bianditz mendia.

### Deskribapena

Bigarren interesgunetik hirugarren interesgunera joateko, Bianditz menditik Urkabe mendira joatea proposatzen dizugu. Han nahiko bide famatua dago: Urkabe bidea. Urkabe oso handia da, gauza asko daude: zuhaitzak, belarra, hostoak, animaliak: barraskiloak, txantxangorriak, eta natura asko dago.

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren laugarren urratsa




Hirugarren interesgunetik laugarren interesgunera joateko: Ergoien auzoa.

### Deskribapena

Hirugarren interesgunetik laugarren interesgunera joateko, Bianditzera joateko bidetik Ergoien izeneko auzo batera iritsiko zara. Hor oso museo polita dago: Soinuenea edo Herri Musikaren Txokoa izenekoa. Han instrumentu zaharrak edo mota askotako instrumentuak daude.

## Zure zirkuituaren bostgarren urratsa




Laugarren interesgunetik helmugara joateko Tolare Jatetxea, Abaraxka ludoteka.

### Deskribapena

Laugarren interesgunetik helmugara joateko buelta berezi bat egin behar duzu. Tolare jatetxetik Elizalde auzora joan behar da, pixka bat luzea da: menditik joan errepidea ikusi arte. Errepidera iristean segi aurrera plazara iritsi arte, ondoren jaitsi Abaraxka ludotekaren plazara, hori da zure helmuga.

# Bisitarientzako gomendioak

Ekarri kamara bat, Oiartzunek merezi du.

Mendira bazkaltzera joango bazara eraman boltsa bat zaborra botatzeko.

Cuando tu perro haya hecho sus necesidades recógelo con una bolsa.

No alimentes a los animales.

Put the mask when you are outdoor.

Do not pick the flowers.